## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Departamentua:** 07 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0720 - Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 200 - Aurrekontuak eta Finantzak
**Funtzionala:** 931 - Politika ekonomikoa eta fiskala

**Programa mota:**

Foru Aldundiaren egitura

**Misioa:**

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta atxikitako entitateen baliabide publikoen kudeaketa kontrolatzea, tresnak eskainiz eta ildo orokorrak, irizpideak, arauak eta jarraibideak ezarriz, baliabide publikoak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeko.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Foru Sektore Publikoaren finantza-egoera egonkorra da, eta pandemiak sortutako egoera zaila gainditu ahal izan du.

Horren ondorioz, foru sektore publikoaren 2022ko ekitaldiaren itxiera 87,13 milioi euroko aurrekontu-superabit finkatuarekin gertatu da.

2023ko aurrekontua Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak EAEko BPGren % 0,1eko defizit-marjinaren barruan onartu zen (16,5 milioi euro, udalekin banatu ondoren). Hala ere, 2023ko ekitaldiko likidazio-aurreikuspenek aurrekontu-superabit ez-finantzarioa aurreikusten dute.

Superabit ez-finantzario horrek eta sortutako diruzaintzako gerakinaren bolumen handiak aukera emango dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2023ko ekitaldirako baimendutako zor berria (31 milioi euro) ez erabiltzeko.
Beraz, finantza-kaudimeneko egoeratik abiatuta, eta ziurgabetasun handia sortzen duten faktoreak dauden arren esaterako ezarri diren defizitaren eta zorraren bidezidor berriak 2024ko ekitaldirako aurrekontu orekatu baten aurrean gaude.

Giza-baliabideei dagokienez, programak belaunaldi aldaketari aurre egin beharko dio. Izan ere, plantillaren %74a 50 urtetik gorakoa da.

Lana antolatzeko eta prozedurak digitalizatzeko modu berriei dagokienez, eraldaketa digitala da datozen urteetarako irtenbide eta erronka handienetako bat.

Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuari (EBA) dagokionez, eta 2021. urtean hasitako entzute-prozesuaren ondorioz, hari lotutako aplikazioen berritzea gauzatzen ari da. Hala, erraztu nahi da aurrekontu-programa departamentuko kudeaketa-plana izatea.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Aurrekontu-kaudimeneko egoeratik abiatuta, eta aplikatu beharreko zerga arauak ezagutu bitartean, lurraldearen gizarte- eta ekonomia- aktibazioari eutsi behar zaio. Beti ere, zuhurtziaz eta kontrolatuz Foru Sektore Publikoaren eta bestelako entitateen finantza-egoera.

Aurrekontu-egonkortasunaren arloko prestakuntza eman behar zaie Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariei eta haien finantza-kudeaketaren arduradunei. Halaber, beharrezkoa da entitate hauekin erabiltzen diren tresnak moldatzea, informazio-betebeharren gorakadari erantzuteko eta eskura dagoen informazio ekonomiko-finantzarioa hobetzeko.

EBA jarduera publikoa planifikatzeko eta kudeatzeko tresna bihurtzea, aurrekontu-programen arduradunekin batera lan eginez eta prozesuan genero-ikuspegia txertatuz, hala, emakumeek eta gizonek dituzten behar espezifikoak identifikatuko dira gastu-politika bakoitzean. Ondorioz, arrakalak identifikatu eta haien kontrako ekintza zehatzak hartu ahal izango dira.

Prozesuen digitalizazioan, datuen segurtasunean eta informazio ekonomiko-finantzarioaren ustiaketan lan egitea.

Azkenik, belaunaldi aldaketa dela eta, ezagutzaren transferentzia gauzatzeko mekanismoak landuko dira.

**Nori zuzendua:**

Foru sektore publikoa eta atxikitako entitateak, Batzar Nagusiak eta Kontuen auzitegiak.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Pertsonalak, finantzarioak, informatikoak.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Aurrekontu, kontabilitate, finantza, kontu-hartzailetza eta auditoretza arloko kudeaketa.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Emaitzetara bideratutako aurrekontua. Kontuen berri ematea. Epe barruko ordainketak. Foru sektore publikoaren jardunaren kontrola eta fiskalizazioa.

**Programaren arau esparrua:**

4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearena. Irailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretua, departamentuen egiturari buruzkoa. Herri kontabilitate planaren foru dekretua. Herri administrazioaren araudi orokorra.2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Arautzeko Plana. 12/2023 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egiturari buruzkoa.

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Foru sektore publikoaren jarduketa ekonomiko egokia bermatu.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Foru sektore publikoaren jarduera ekonomiko egokia bermatzea | Bai/Ez | = | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Betetze-ikuskapenen kopurua handitzea | Kopurua | >= | 3,00 | 4,00 | 5,00 | 5,00 |

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoa:**

Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu

5 GENERO BERDINTASUNA % 0,03

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 99,59

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **914.306,94** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Ikuskatze eta auditoretza jarduketak. | 848.744,25 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.2 Ekintza**<br>Kontratazio inguruko pleguen ereduak mantendu eta eguneratu. | 28.929,30 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Foru Sektore Publikoko ezaugarri admistratiboa dituzten entitateen kontrol-mekanismoa indartu. | 33.187,38 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Elkarlaneko gobernantza-eredu berria ezartzeko lantalde espezifikoetan parte hartzea. | 1.070,56 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.5 Ekintza**<br>Programaren dirulaguntzan edota kontratuen mapa linguistikoa osatu | 2.375,45 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**Urteko helburua:** Aurrera egitea emaitzetara bideratzeari dagokionez eta Aurrekontuaren zeharkakotasunari dagokionez

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Emaitzen adierazleen ehunekoa | Ehunekoa | >= | 40,00 | 55,00 | 70,00 | 80,00 |

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoa:**
Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea.

5 GENERO BERDINTASUNA % 72,32

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 21,04

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **45.167,63** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>EBA tresnaren erabilera-azterketa KEWn | 1.337,94 | | | 2024/01/01 | 2024/06/30 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Aurrekontuak genero-ikuspegitik egiteko metodologia eguneratzea | 40.829,69 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Topaketak sortzea foru-teknikarien eta genero-ikuspegia duten aurrekontuen arloko adituen artean, dauden | 3.000,00 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| metodologiei buruzko ezagutza zabaltzeko | | | | | | |

**Urteko helburua:** Eskura dauden baliabideen erabilera optimizatzea, aurrekontu-egonkortasunaren esparruan, politika publikoak gauzatzeko.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| KSE betetzea=Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa | Bai/Ez | = | | Bai | Bai | Bai | Bai |

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoa:**
Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan.

5 GENERO BERDINTASUNA % 0,37

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 99,59

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **2.119.528,07** | **34.109,00** | | **2024/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Epe ertaineko aurrekontu plana prestatu. | 11.240,88 | | | 2024/01/01 | 2024/05/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Aurrekontua: prestaketa, aldaketak, likidazioa. | 514.671,92 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Kontabilizazioa egin eta kontuen berri eman. | 835.037,12 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Kontabilitateko prozesuak digitalizatu. Hobetzea datuen segurtasuna eta egiaztapena. | 470.132,67 | 34.109,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.5 Ekintza**<br>Egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren arloan atxekita dauden entitate guztien jarduera ekomiko eta finantzarioaren kontrola eta jarraipena. | 227.994,09 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.6 Ekintza**<br>Atxikitutako entitateen zuzendaritza organoetako aldundiko ordezkariak egonkortasun eta iraunkortasunean trebatzea. | 15.220,21 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.7 Ekintza**<br>Informatika tresnak diseinatu mendeko entitateetan dauden GFA-ko ordezkariak erabakiak hobeto hartzen laguntzeko. | 44.428,26 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |
| **1.8 Ekintza**<br>"Partaide" aplikazioa ezartzea | 802,92 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Genero-ikuspegia txertatzen jarraitzeko, aurrekontu-programen fitxak hobetzeko prozesua garatzen ari da, emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eraginari dagokionez, garrantzi handiko 14 aurrekontu-programarekin. Programa horiek kudeaketa-aurrekontuaren % 34 eta genero-berdintasunerako ekintzetara bideratutako aurrekontuaren % 24 dira.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 52.061,20 | ( % 1,67 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 52.061,20 | ( % 1,69 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.** | **Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.** | **Go.5.1.3. GFAren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Go.HO.5.5. Lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitzea GFAren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko** | **Go.5.5.1. Foru Aldundiko teknikarien eta genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu gaietan adituak direnen arteko topaketak egitea gaur egun dauden metodologiei buruzko ezagutzak handitzeko.** | **( % 100,00 )** | |
| | **Go.5.5.2. Genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak lantzeko metodologia eguneratzea.** | **( % 100,00 )** | |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Hizkuntza-berdintasunaren transbertsalitatea txertatzeko lanean ari dira, programen kudeatzaileei emanez Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuan integratzeko beharrezkoak diren tresnak.

Bestalde, aplikazio informatikoak eta aurrekontuari, kontabilizazioari, finantzei, ikuskaritzari eta auditoretzari dagokien kudeaketaren barne eta kanpo komunikazioak Foru Aldundiak ezarritako hizkuntza-irizpideak bete behar ditu, batez ere Ogasun eta Finantza departamentuaren euskararen erabileraren kudeaketa planari dagokionez.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak** | |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programak hurrengo GJHei erantzuten die: 5.c Genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartu eta indartzea, eta 16.06 Maila guztietan kontuak ematen dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea .

Ondorioz, programa honek aurrekontu-programen kudeatzaileekin lan egiten du, horiek genero-ikuspegia txerta dezaten, arreta berezia eskainiz desberdintasunak identifikatzeari eta, horiek ezabatzeko dauden helburu, ekintza eta baliabideei.

Bestalde, baliabide publikoen kontrolak gardentasuna eskatzen du eta, aldi berean, gardentasuna ekartzen du. Horrela, baliabideen kudeaketa eraginkorrari laguntzen dio.

**Kuantifikazioa:** 3.105.862,71 ( % 99,77 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | 5-Genero berdintasuna<br><br>Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea. | **40.895,27** | |
| **Helbubura** | 5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan. | 40.895,27 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea. | 32.663,75 | |
| | Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu | 289,29 | |
| | Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan. | 7.942,22 | |
| | 16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **3.030.858,44** | **34.109,00** |
| **Helbubura** | 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 3.030.858,44 | 34.109,00 |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Aurrekontu programak kudeatze planetan bihurtzea. | 9.503,88 | |
| | Foru sektore publikoko entitateen jarduketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatu | 910.571,64 | |
| | Aurrekontu politikaren kudeaketa, egonkortasun terminoetan. | 2.110.782,93 | 34.109,00 |
| **Guztira** | | **3.071.753,71** | **34.109,00** |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2023 | 2024 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | 2.659.881,00 | 2.699.427,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 151.545,00 | 191.545,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **2.811.426,00** | **2.890.972,00** | | | | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | 171.000,00 | 188.040,00 | 34.109,00 | | | | 34.109,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **171.000,00** | **188.040,00** | **34.109,00** | | | | **34.109,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **2.982.426,00** | **3.079.012,00** | **34.109,00** | | | | **34.109,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | | 2.699.417,64 | | | | 2.699.417,64 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | | 191.545,00 | | | | 191.545,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | | **2.890.962,64** | | | | **2.890.962,64** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | | 188.040,00 | | 34.109,00 | | 222.149,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | **188.040,00** | | **34.109,00** | | **222.149,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | | **3.079.002,64** | | **34.109,00** | | **3.113.111,64** |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2023 | 2024 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS | 5.000,00 | 5.000,00 | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 17.200.000,00 | | |
| 5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **17.205.000,00** | **5.000,00** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | | |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | 26.189.424,00 | 11.354.366,00 | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | **26.189.424,00** | **11.354.366,00** | |
| **Guztira / Total** | **43.394.424,00** | **11.359.366,00** | |